

MUNDAKA / Aldizkari zaharren azoka ipini dute, liburutegia herritarrei hurbiltzeko

Eguraldi txarra dela eta, liburutegi barruan ipini behar izan dute aldizkari zaharren azoka.

Olaia Zabalondo

Mundakako liburutegiak aldizkari zaharren azoka antolatu du, herritarrak liburutegira hurbiltzeko asmoagaz. Hasiera batean liburu zaharrak ere egon behar zuten azokan, baina Eusko Jaurlaritzako protokolo kontuak direla eta ezin izan dituzte ipini.

Atzo goizean ireki zituen ateak Mundakako liburutegiak antolatutako lehenengo aldizkari zaharren azokak. Liburutegi kanpoan jarri behar zuten, baina eguraldi txarra dela eta, azkenean liburutegi barruan ipini dute. Liburutegiaren arduradunen esanetan, pena bat da, barruan jarrita agian jende gutxiago hurbilduko delako, kalean erakargarriagoa izaten baita denentzat.

Ekonomia, kultura, arkitektura musika... Hainbat aldizkari daude azokan. 1990. urtekoak dira zaharrenak, batzuk oraindik kaleratzen dira, eta beste batzuk ez. Liburutegia txiki gelditu zaigu aldizkariak gordeta izateko, eta agian jendeak interesa izango du aldizkari zahar hauek etxean izateko. Bestalde, liburu zaharrak ezin izan dituzte azokan jarri, Eusko Jaurlaritzak protokolo bat betetzea eskatzen du, hori bagenekien, baina ez genuen uste prozesua horren luzea izango zela. Ez digu denborarik eman pauso guztiak jarraitzeko. Hori dela eta, azoka honetan ezin izan ditugu liburu zaharrak atera.

Hala ere, uda sasoian berriro azoka antolatzeko asmoa agertu dute liburutegi ko arduradunek, azoka horretan bai, liburuak jarriko ditugu, eta batik bat eleberriak izango dira. Gutxi gorabehera 100 eleberri ditugu gordeta, hurrengo azokan saltzeko asmotan.

0,10euro aldizkari bakoitza

Prezio sinbolikoa jarri diote aldizkariari. 0,10 euro balio du aldizkari bakoitzak, ateratzen dugun dirua liburutegiko edukiak berrizteko erabiliko dugu.

Aldizkari zaharren azoka gaur ere irekita egongo da 11:30etik 14:30era eta 16:00 etatik 20:00etara.